

Granada erreka Aizarnan



Ingurumen-garrantzia

Granada erreka, sorlekutik Urola ibaian bat egin arte, kontserbazio egoera onean dago, ur kalitate bikaina eta ongi kontserbaturiko landaredia. Aipatzekoak dira haltzak (*Alnus glutinosa*) eta lizarrak (*Fraxinus*

excelsior). Uraren kalitate onak eta ibar baso sarriak ur-ipurtatsa (*Mustela lutreola*) bezalako espezieen agertzea ahalbidetzen du.



URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 3 km



Ordu 1



Hurbileko herria:
Aizarnazabal



Ibaia:
Granada erreka



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



↑ 89 m

↗ 115 m

↓ 26 m

↘ 54 m

GRANADA ERREKA AIZARNAN



Granada erreka Aizarnan




Non dagoen eta nola heldu

Granada erreka goiko tartea Gipuzkoako Lurralde Historikoan dago, Urola kostea eskualdeko Aizarnazabal udalerriko lurretan. Donostiatik edo Bilbotik hasita, A-8 autopistan Zestoako irteera hartu, eta ondoren GI-631 errepideari jarraituko diogu. Gasteiztik N-240a hartuko dugu eta ondoren A-527a Arrasaterantz, edo AP-1 Donostiarantz Zestoako irteera hartuta. Aizarnazabalerako errepidean, "Forjas de Iraeta" lantegiaren parean hartuko dugu Urdaneta-Altzolaratserrako sarbidea.

Ibilbidea haranaren beheko partean hasten da, Granada erreka Urolarekin bat egiten duen tokian. Urdaneta-Altzolarats errepideari jarraiki, kontserbazio egoera oneko ibai tartea aurkituko dugu, haraneko ur eta budinaren erabiltzearen lekuko diren antzinako burdinolez eta errotez josia. Atzean utziko dugu Txiriboga lehen burdinola eta ondoren Urbietatik errota. Hormigoizko pistatik jarraitu eta kilometro bat ingurura utziko ditugu geure ezkerretara borda bat eta ibilguaren gaineko egurrezko pasabide bat. Bertatik, ibaiaren edertasuna gozatuko dugu: kalitate oneko ura eta ongi kontserbaturiko ibar landareak. 900 bat metro aurrera Bekola burdinola ikusiko dugu ur-presa, erretena, antepara eta guzti. Burdinolaren aurrean harrizko zubitxo bat dago, Beduatik, Urolatik, burdin mea ekartzen zuen bidearen lekuko. Bertako paisaia laiotzean dago, berdea, beraz, landare ugariak. 800 bat metro aurrerago Goikola burdinolara iritsiko gara Olalde baserriaren ondoan, eta, haranean gora Altzolarats jauregi gotikoaren aztarnak (XV. mendekoa) ikustea dugu Errotatik baserriaren ondoan. Bertan dago Aizarnazabal eta Aia lotzen zuen bidearen harrizko zubi bat.

Puntu horretara helduta bide beretik egin dezakegu itzulia edo haran karstikoan sartu Errezabal baserriraino eta Altzolarats haran estua igo Granada baserriaren ondoko indarretxeraino, izen bereko ibaiaren ertzetan.

Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia. Euri sasoian Bekola burdinolako ur-jauzia gozatu ahal dugu.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:





Wikiloc

Granada erreka Aizarnan



Granada erreka Aizarnan



Granada erreka Aizarnan

